

ere ugariak izan dira errotulazio kanpainetan aritzeagatik atxilotuak eta isunak izan dituzten EHEkideak, baina inork ez du hila-betetik gora espetxean pasatu.

Alderdiekiko harremanak

Alderdien euskararekiko jarrera gertutik -eta barrutik ere sarritan- jarraitzen zuen EHEk, eta bereziki alderdi abertzaleena. "Alderdiek 'zozoak beleari ipurbeltz', alta guk zozoari egurra", hori zen EHEren logika; alegia, EHEren aburuz alderdien jarrera hipokresiaz josita zegoela, eta ezin zitekeela haien zain egon:

"(...) Gure alderdi etxeoetan, edota-abertzaleetan, euskarak ez du aurkitzen benetako defentsarik. PNV-ak, ESEI-k, EE-ak, HBak, eta abarrek, ez daukate euskararen zuzpertzeko benetako asmo, programa eta praxirik. Gure udalteeetan abertzaleak nagusi direlarik, ez da nabari, gehien batean, benetako bilinguismo edo elebitasun baterako urratsik. Sasi efikaziak eraginda, aipatutako alderdiek erdara darabilte nagusien beren harreman, agiri eta batzarretan"³⁾. Alderdiak astintzeaz gain, hauen inguruko egunkariak eta komunikabideak ere -"Egin", "Deia", "Euzkadi", "Punto y Hora", "Hitz"- astindu ederrak jaso zituzten.

Udala jarduera gune berezietakoa ziren orduko EHE elkarteentzat, udalbatzarretara

*Une gorienetakoa EHEK
HASIk hartutako neurrien
aurkako komunikatua
atera zueneko izan zen,
estatuetatik militanteek
euskara jakin behar zutela
ezabatu nahi baitzuten*

sartu eta erdararen erabilera salatzen zuten. 1980an Donostiako udaletxearen udalbatzaren batzarra lehertu zuten EHEkideek "han espainola besterik hitz egiten ez zelako". Txus Congil eta Felix Soto HBko zinegotziek udal aretoan eta publikoki autokritika egin zuten.

"Horiek HBkoak dira"

Baina politikaren munduan EHEk ere bazuen kokapenik, nahiz-eta ez zen inongo alderdiren nahietara makurtzen. "Horiek HBkoak dira", hau izan da EHEri historikoki bizkarreratu zaion salaketa, sarri- askotan atek itxi dizkiona eta bere jarduera mugatu


ere bai. Txillardegiren ustez "HB edo KASeko jendeak hori kontrolatu beharra zegoela pentsatuko zuen, horrelako talde bat ezin zela noraezean ibili, eta egia esan orduan bi aukera zeuden, edo HBra edo EAJra, eta alde batekoak gehiago ginen, alde batera gehiago bultzatu genuen".

Joseba Alvarez ere, Txillardegiren semea eta gaur egun HBko Mahai Nazionaleko kidea eta euskara arloko arduraduna, hastapen haiek bizi izandakoa da: "Bai, jendearen %95 ezker abertzale ingurukoak ginen, baina euskaltzale sutsuak eta HBri ere oso kritika gogorrrak egiten genizkion, behin Miguel Castells salatu genuelako, hurrengoan HASIko kongresoa zela eta...". Lizarran ospatutako Aberri Egunean honako eskela kaleratu zuen EHEk: "Batzuk independentziaren izenean beste batzuk autonomiaren izenean, guztion artean euskara hiltzen ari zarete".

Beharbada une gorienetakoa 1983ko azaroan EHEk HASIk bere kongresuan hartutako neurrien aurkako komunikatu bat atera zueneko izan zen: "Kongresua zela eta tirabira gogorrak izan genituen haiekin, estatuetatik militanteek euskara jakin behar zutela ezabatu nahi baitzuten", zehazten du Alvarezk.

Sagrario Alemanek lasaitasunez hartzen du galdera, "gizarte honetan sistema zalantzan jarri edo kritika egiten duenari sarritan kokatzen zaio alde batean. Bestetik naturala da eta gu ezin

(3) "EHE taldeen sorrera ekitaldiko agiria". Durango, 1979ko azaroaren 4an.



Jose Luis Alvarez Enparanza, "Txillardegi"

"Gauzak hobetu dira batzuek borrokan jotake jardun dutelako"

Uruti samar geratzen da 1979ko azaroa hura. Nola ikusten duzu gaurko egunetik una hura, zerk bultzatu zituzten EHE izeneko talde haien sorrerara?

Egoera bitxia zen eta euskara eta Eus kal Herriarekiko esperantza handiak bizi izan ziren au rreko urteetan. Hizkuntz eremuan "la solución es el bilingüismo", "sistemaren barruan egin liteke zerbait", eta horrelakoak indarrez entzuten ziren, baina aldi berean oso abstraktoak ziren. Jendea baikor zegoen. Baina euskarari zegokionez behintzat, euskaltzale asko berehala konturatu ginen egoerak beretsu jarraitzen zuela. Desilusio horretatik sortu ziren EHE taldeak, hitz egiteko eta teorizatze bako bako, euskararen aldeko ekintzan oinarrituak.

Aurretikotik ESBn zeuden eta han ere euskararengatik ere arazoak izan zenituen, ez?

Bai, ESBn ere, orduko alderdi abertzale gehienetan bezala, euskara kontu formala zen. Nik alderdiaren zuzendaritzak euskalduna izan behar zuela uste nuen eta jarri ere horretarako bi urteko epea jarri zen. Baina ez zen planik egin eta denbora pasata nik gutun bat bidali nion zuzendaritzari, honen guztiaren ondorioz 190 pertsona kanporatuak izan ginen.

Orduan, zergatik bezala, euskararen alderdia egiteko tentaziorik ere izan zen.

Bai, asko bero-bero atera ginen ESBtik baina zentzu horretan alderdi guztiak berdinak zirela ikusi genuen. Gure benetako lana euskararen aldeko herri mugimendua erakitzea zela konturatu ginen, definizio politiko zehatz gabekoa, nahiz eta hango askok baguen kolorerik.

Zein da hasierako urte haietako zure oroitzapen indartsuenetakoa?

Gure kemena eta aktibismoa, batez ere. Ez genuen talde po litikoa izan nahi, ezta teorizatzailea ere, praktikan oinarritutako taldea baizik; herriz herri jardun genuen azaltzen hemen bi hizkuntza zirela, bata bestearen menpe, eta horrela jarraituz gero pikutara gindoazela. Hitzaldiak, okupazioak, manifestazioak... baina gure jardun nagusia pintadak eta ezabaketak egitea zen, atera autoarekin eta jo eta su. Oso ospe txarra hartu genuen, dena zikintzen genuela, hori ez zela euskara laguntzea eta horrelakoak sarri entzuten genituen. Garai haietako gauzarik garrantzitsuenetakoa jendearen ilusioa zen eta horregatik gure manifestazioetara kolore guztietako milaka pertsona hurbiltzen ziren.

Aipatuko al didazu zuretzat bitxia izan zen ekintza horietakoren bat?

Donostiako Radio Nazionaleko okupazioa 1981eko otsailaren 22an, "Tejerazo"aren bezperan. 60 bat pertsona

EHEren hasierako garaian "gure jardun nagusia pintadak eta ezabaketak egitea zen, autoarekin eta jo eta su", Txillardegik dioenez. (Arg.: Garikoitz Garaialde).

gaitezke gure ezker abertzalearekiko gertutasuna gezurtatzen ibili, baina gertutasuna gauza bat da eta menpekotasuna bestea; horrelako talde bat ez da inoren menpe egon behar". Ezker abertzalearekiko tirabiren erakusgarri edo, Herrera de la Manchako espetxera egin ziren lehendabiziko martxa haietako batean gertatutakoa datorkio burura: "II.a edo III.a zen eta EHEko hango militanteek 'Euskal Herrian Euskaraz' oihuka hasi ginen ezker abertzaleko arduradunen batzuk izandako negoziazioen berri erdara hutsean emateari ekin ziotenean. Kritika gogorak jaso genituen huragatik".

EAJ eta Instituzioak

Euskal Herrian Euskaraz eta instituzioen artean ez zegoen istorio arrosik, alderantziz, EHEk hasieratik erakutsi zuen Gernikako Estatutuarenganako zuen distantzia zeresanik ez Amejoramentuaren aurrean, gerora hurbilketarako zanga gaindiezina bihurtuko zena gainera. Alabaina, hitz egindako garai haietako EHEkide guztiek bat datoz EHE eta instituzioekiko harremana bitxia eta oso desberdina zela azpimarratzean, zenbaitetan haiekiko konplizitate puntua lortzen baitzuten. Luis Mari Mujikak, esaterako, Labaien animo berbak gogoratzeaz gain bere prestutasuna mahaigaineratzen du: "1981eko otsailean Donostian Radio Nacional okupatu ondoren, Txillardegik eta biok atxilotzerakoan eta gero epailearengana

joaterakoan, erdaraz deklaratzetik nahi ez genuenez, epaileari itzultzailea eskatu genion. Epaileak, katalana bera, itzultzailearen bat lortuz gero euskaraz mintzatzea onartuko ligukeela esan zigun, orduan Labaieni deitu eta berak egin zigun itzulpena, Eusko Gobernuako Kultura kontseilariak".

Joseba Alvarez erabatekoagoa da: "Gaur egun ETB baldin badugu hori Ramon Labaienen jarreगतिक izan zen, eta funtsean bera eta herri presioaren uztartzearen ondorioa, gaur egun ez lukete horrela jokatu". Zalantza barik, garai bitxiak ziren, eta oraindik telebistaren inguruko legedi zehatzik ez bazegoen ere, Labaien Gernikako Estatutuan oinarritu eta zeuden zirrikituek baliatu zen. Madrilerako joan-etorriak egin ondoren eta baimenik

"Gaur egun ETB baldin badugu hori Ramon Labaienen jarreगतिक izan zen, eta funtsean bera eta herri presioaren uztartzearen ondorioa"

JOSEBA ALVAREZ

lortu gabe oraindik zera esan omen zien hangoei, "bihar hasiko da martxan telebista eta zuek ez bazaudete konforme, bidali Goardia Zibila".

1980ko abuztuan Labaienek Euskal Herrian Euskaraz-ekoak bere bulegora deitu zituen eta bertaratu zirenen artean zegoen Alvarez: "1980ko abuztuan Labaienek gabonetarako euskarazko telebista izango zela adierazi zuen eta guk kartelak atera genituen hori esanaz. Bulegoan, Labaienek kanpaina berak ordainduko zuela proposatu zigun baldin eta 'Gabonetarako' hori karteletik kentzen bagenuen. Guk ezetz, bere hitzak zirela eta hori horrela geratzen zela. Beno, azkenean nolabaiteko akordiora heldu ginen, guk kanpaina egin genuen eta berak erdia-edo ordaindu zuen".

Alvarezen esanetan, hasierako garaietan Garaikoetxearen gobernuaren zenbait pertsona "EHEren txaparekin agertzen zen eta horietako batzuek hasierako manifestazio handi haietan ere parte hartzen zuten. Garaikoetxearen lehenengo gobernu hura ez da gaurko EAJ, ezta gaurko giroa ere... Oraingo jendea askoz teknokratagoa da eta, adibidez, gaurkoek orduko ETBrena gisako arazo bat edukiz gero, gaur egun ETB ez litzateke jarriko, ziur nago".

Gerora, herri txutxumtxuen fonotekan behin baino gehiagotan entzun izan da Ramon Labaienek arimaz eta bihotzez errealtate bihurtutakoak Etxenikek legez josi behar izan zituela.

sartu ginen eta komunikatu bat irakurri arte bertan gertatu ginela esan genien. Polizia etorri zen eta, gure burua ekintzaren arduradun gisa aurkeztu genuenez, poliziak Luis Mari Mujika eta biok atxilotu gintuen. Erdaraz deklaratzeko asmorik ez genuenez, Ramon Labaieni etortzea eskatu genion eta etorri eta itzulpen lanak egin zituen.

EHEri hasieratik egotzi izan zaio HBren satellite izateaz.

EHEn bazegoen politikatik etorritako jendea, ESBkoak nagusiki, baina batez ere kultura munduko jendea zen eta, oro har, alderdi politikoen kontrakoak ginen; erago ESBtik etorritakook, mundu horretan ibilita gertuagotik eza gutzen genuen-eta. Dena den, EHEk alderdietatik albora geratu nahi bazuen ere, jakin bazekien bere lana politikoa ere bazela. Egia da jende gehiena ezker abertzalekoa girela, baina HB edo KA Seko jendeak hori kontrolatu beharra zegoela pentsatzen zuen, horrelako talde bat ezin zela noraezean ibili. Orduan bi aukera na gusi zeuden: PNV eta instituzioena, eta HBrena, eta jende gehiena HBren joerakoa zenez, harengantz tira genuen, baina euskararen kontuetan haiek ere oso gogor kritikatzin genituen eta arazoak ere sortu ziren.

Orduko alderdien gogoeta berezirik?

Garai hartan euskara ez zen alderdien lehen mailako gaia, ezta HBn ere, ez zegoen integratua abertzaleen mugimenduan. Esate baterako, oso ohizkoa zen ekitaldi edo bilera bateratuetan "oye perdona, pero es que se nos ha olvidado la traducción en euskara" entzutea.

Euskararen normalizazioan presio egiteko sortu zenuten EHE, gaur egun nola ikusten duzu prozesu hori?

Aurrerakuntza handiak egin dira eta euskarak aurrera egin du euskal mugimenduan, inoiz baino euskaldunagoa da. Hau ikusteko nahikoa da EAJren gerra aurreko "Euzkadi" aldizkaria ikustea, ez zekarren ezer euskaraz. Euskaltzaindiaren bilerak eurak ere 50. hamarkadan erdaraz

egiten ziren, Julio Urkijok ez baitzekien euskaraz; hil zenean, Krutwigek "orain bilerak euskaraz egin ahal izango ditugu" esan zuen, eta zorrotzat hartu zuten. Duela 40-50 urte euskara galdutzat eman zitekeen eta gaur egun ez, esan daiteke segurtatua dugula, edo behintzat ezin daiteke horren errez esan desagertuko denik.

Eta EHEren urte hauetako garapena nola ikusten duzu orain?

Beno, nik aspaldi utzi nuen, baina beharbada gehiago burokratizatu dira, txosten asko, manifestazio handirik ez... Egia da, halaber, egoera hobetu egin dela eta horrek hasiera bateko grina kentzen diola, gauzak lasaitu egiten direla. Dena den, hemen gauzak hobetu dira batzuek borrokan jotake jardun dutelako.

Hasierako EHEren izaera aldarrikatzaile zela azpimarratu du Txillardegik, borroka mailan mugitzen ziren.

